



KARRIKIRI

IRUÑEKO EUSKALDUNON ELKARTEA

**Euskara bultzatzeko
ekintza berritzaileak**

**HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA
HIZNET 2005-2006 IKASTURTEA**

Ainara Ibañez Lusarreta

Karrikiri euskaldun ameslari batzuen elkarte da. Sortu zenean, orain bederatzi urte, Iruñean bizi ziren hainbat euskaltzalek bat egin zuten euskaraz bizi nahi zutelako. Gurean euskaldunen komunitatea txikia zen kopuruz, geografikoki sakabanatua, elkarren artean ezezaguna eta eremu publikoan islarik ez zuena.

Egoera horrelakoa izanik, amets egin zuten erosketak euskaraz egingo zituztela, pisukide euskaldunekin partekatuko zutela egunerokoa, taberna eta jatetxeetan lagun eta langile euskaldunekin arituko zirela, euskara ikasten ari direnentzat tutoreen sarea osatuko zutela, soziolinguistikaz ikasteko aukera berezia irekiko zela, lana euskaraz egiteko poltsa berezia martxan jarriko zela, behar zuten dentista edo arkitektoarekin euskaraz solastuko zirela edo kalea alai eta kantari beteko zutela beste euskaldun askoren laguntzarekin. Amestu zuten Iruñean euskaldun izatea ez zela amets hutsa, benetan gozatzeko ametsa baizik¹.

¹ Karrika aldizkaria, 2006ko ekaina, 100. zk.

AURKIBIDEA

1. LABURPENA	5
2. SARRERA.....	6
3. METODOLOGIA.....	9
4. KARRIKIRI	10
4.1. KARRIKIRIREN SORRERA	10
4.2. KARRIKIRIREN HELBURUAK	11
4.3. KARRIKIRIREN ANTOLAKETA ETA BALIABIDEAK	11
4.4. KARRIKIRIREN EKINTZAK.....	13
5. EKINTZEN AZTERKETA	16
5.1. KARRIKIRI DENDA ETA DENDA MUGIKORRA	17
5.1.1. EKINTZAREN DESKRIBAPENA	17
5.1.2. EKINTZAREN AZTERKETA ETA BALORAZIOA	20
5.2. "KARRIKA GUREA DA"	22
5.2.1. EKINTZAREN DESKRIBAPENA	22
5.2.2. EKINTZAREN AZTERKETA ETA BALORAZIOA	24
5.3. MERKATARITZAN EUSKARAZ	26
5.3.1. EKINTZAREN DESKRIBAPENA	26
5.3.2. EKINTZAREN AZTERKETA ETA BALORAZIOA	31
5.4. ITZULPENGINTZA ZERBITZUA	33
5.4.1. EKINTZAREN DESKRIBAPENA	33
5.4.2. EKINTZAREN AZTERKETA ETA BALORAZIOA	35
5.5. KARRIKA ALDIZKARIA.....	36

5.5.1. EKINTZAREN DESKRIBAPENA	36
5.5.2. EKINTZAREN AZTERKETA ETA BALORAZIOA	39
5.6. LAN POLTSA	41
5.6.1. EKINTZAREN DESKRIBAPENA	41
5.6.2. EKINTZAREN AZTERKETA ETA BALORAZIOA	43
5.7. PISUKIDEAK ZERBITZUA	46
5.7.1. EKINTZAREN DESKRIBAPENA	46
5.7.2. EKINTZAREN AZTERKETA ETA BALORAZIOA	48
6. ONDORIOAK	50
BIBLIOGRAFIA	55

1. LABURPENA

Hizkuntzaren normalizazioaren aldeko borrokan euskaltzaleek erabili izan dituzten presio modu, mobilizazio eta sentiberatze kanpainekin zerikusizuzena duen gaia aztertuko da lan honetan.

Euskaltzaleek burututako ekintza guztien ondorioz, lorpen handiak izan dira euskararen berreskurapenean azken hamarkadetan. Hala ere, euskararen normalizazioa lortzeko oztopo handiak daude oraindik, euskara gutxiengoaren hizkuntza baita Euskal Herrian.

Normalizazioaren testuinguru honetan euskara elkartearen zeregina oso garrantzitsua da egun Euskal Herri osoan, eta zer esanik ez Nafarroan edo iparraldean non euskararen egoera oraindik larriagoa den.

Ikerketa lan honen bidez Iruñeko euskara elkarte garrantzitsu batek, **KARRIKIRIK**, euskararen erabilera sustatu asmoz bultzatzen ari den zenbait ekintza aztertuko dira. Hemen aurkeztuko direnak, ekintza berritzaileak dira beste herrietan ere erabilgarri eta baliozkoak izan daitezkeenak.

2. SARRERA

Hogei urte baino gehiago dira lehen euskara elkarte sortu zela, eta ondorengo urteotan herri eta eskualde askotan hainbat eta hainbat elkarte loratu izan dira.

Euskara elkarteek hasieratik honako helburuak izan dituzte: hizkuntza eskubideen aldarrikapena, irakaskuntza, alfabetatzea, corpusa, ezagutza,... Euskararen erabilera izan da elkarteek orain arte gutxien landu duten esparrua. Hala ere, azken urteotan euskararen erabilera sustatzea elkarte askoren helburu nagusi bihurtu da.

Euskara normalizatzeko euskaldunok euskara erabiltzea behar beharrezkoa da, eta hori posible egiteko bitartekoak eskaini behar zaizkio gizarteari. Hori da, beraz, oraingo euskara elkarte askoren xedea: euskararen erabileran eragitea.

J.M. Sanchez Carrión (Txepetx) "Un futuro para nuestro pasado" lanean aipatzen duen moduan hizkuntza baten normalizazioa lortzeko hiru aldagaik dute garrantzia: ezagutza, motibazioa eta erabilera. Euskara elkarteek gehien bat azkenengo bietan eragiten hasi dira azken urteotan.

Euskararen erabilera eta motibazioa sustatzeko xedea duten elkarteek ezaugarri amankomunak izaten dituzte gehienetan:

- Herri edo eskualde mailako esparruan aritzen dira lanean.
- Herritarrek sortutakoak izaten dira.
- Norbanako bazkideek osatuta daude, eta bazkide horiek euskaldunak dira kasu gehienetan.
- Gizartean bete gabe dagoen arlo, behar, gabezia edo aldarrikapen bati erantzuteko antolatutako jarduerak dira.
- Publiko zabalari zerbitzua eskaintzeko helburuarekin sortutako ekintzak burutzen dituzte.
- Antolaketa egituratua eta formalizatua izaten dute.

- Ez dute irabaziak bazkideen (akziodunen) artean banatzeko asmorik izaten.
- Alderdi eta instituzioekiko independentzia politikoa mantentzen saiatzen dira.
- Bestelako eragileekin eta elkarteekin elkarlanean aritzen dira.
- Borondatezko lana eta soldatapeko lana uztartua egoten da elkarte hauetan.
- Euskarazko komunikabideak bultzatzea.

Euskara elkarteek funtzio desberdinak betetzen dituzte, bai gizarteari begira, bai elkarte berari begira ere. Gizarte esparru desberdinetan (aisialdia, lagunartea, kultura jarduerak, komunikabideak,...) euskararen normalizazioa lortzeko ekintzak burutzeaz gain euren barne funtzionamenduarekin bazkideen artean hizkuntza ohitura edo dinamika sortzen dute, era honetan, euskaraz bizitzeko aukera emanez.

Euskal Herria osoan sortu dira mota honetako elkarteak eta Iruñerrian ere badugu horren adibiderik: Atarrabiako Karrikaluzeko elkarteak, Iruñeko Biltoki elkarteak, Iruñeko Zaldiko Maldiko Elkarteak eta lan honetan aurkeztuko den Karrikiri Iruñeko euskaldunon elkarteak.

Gaur egun elkarte hauek guztiak Topagunearen barruan daude, Euskara Elkartearen Federazioaren barnean eta haien artean koordinatzeko helburua dute.

Lehenago aipatu den moduan lan honen asmoa Iruñeko **Karrikiri elkarteak**, ekintza desberdinen bitartez, euskararen normalizazioan izan dezakeen garrantzia eta indarra ezagutzea da. Karrikirik, egun, burutzen ari den ekintzen azterketa burutuko da lan honetan.

Gehiago zehaztuz:

- ✚ Karrikiriren hastapenak ezagutzea: elkartearen sorreraren zergatia, hasierako helburuak, lehendabiziko urrats eta oztopoak, elkartearen ezaugarriak,...

- ✚ Karrikirik bultzatutako ekintzak, mobilizazio eta sentiberatze kanpainak ezagutzea
 - Ekintza bakoitzaren zergatia eta beharra
 - Ekintza bakoitzaren helburuak
 - Ekintzen bakoitzaren azalpena
 - Ekintzak burutzeko baliabideak, beharrak,...
 - Ekintza bakoitzaren lorpenak
- ✚ Emaitzak eta eragin positibo eta negatiboei buruzko gogoeta burutzea
 - Karrikirik bederatzi urte hauetan lortu dituen helburuak (orokorra eta zehatzak).
 - Lorpenen balorazioa.
 - Sortutako ideia guztiekin azken gogoeta edo ondorioa.

3. METODOLOGIA

Lan hau burutzeko erabilitako metodologia, metodologia kualitatiboa izan da. Proiektu honen helburua ez da izan emaitza zenbagarriak lortzea baizik eta elkartearen inguruan lanean dabilzan pertsonen ikuspuntuak, iritziak, jarrerak ezagutzea.

Hori dela eta, aukeratutako ikerketa teknikak jarraian agertzen direnak izan dira:

Iturri sekundarioen ustiapena

Zeharkako edo beste batzuek aipatutako iturriak dira hauek, aldizkarietatik ateratako informazioa, egunkarietako berriak,...

Iturri sekundarioen bidez elkartearen inguruko ideia orokorrak lortzeko informazioa bildu egin da, batez ere, elkartearen hasierako garaietako. Informazio hau oso baliagarria izan da ikerketa gaia gehiago zehazteko eta elkarrizketetarako galdetegiak prestatzeko orduan.

Elkartearen inguruan lanean dabilzan pertsonen egindako elkarrizketak

Informazio iturri diren elkartearen kideei egindako elkarrizketak dira hauek. Osotara zazpi elkarrizketa egin zaizkie Karrikirin lanean dabilzan pertsona desberdinei: elkarte sortu zuten kideei eta baita azken urteetan elkartearen lanean hasi direnei ere. Era honetan ikuspuntu desberdinak aztertu ahal izan dira.

Ekintza bakoitzaren azterketa eta balorazioa egiteko eta baita elkarte berarena ere AMIA analisia erabili da. Anali honen bitartez ekintza eta elkartearen aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahuleziak aztertu dira.

Aurrera jarraitu aurretik, eskerrak eman nahiko nizkieke proiektu hau burutzeko laguntza eta informazio iturri izan diren Karrikiriko kideei eta baita Joxe Jabier Iñigori bere aholku guztiengatik.

4. KARRIKIRI

Iruñerrian txirrindulariek ez dute bide gorririk alde batetik bestera mugitzeko eta, horregatik, kotxeen artean ibili behar izaten dute beti. Txirrindulari horiek euskaldunak direla pentsa dezakegu, kotxedunak erdaldunak eta Karrikiri euskaldunak euskaraz bizitzeko bidegorria sortzen saiatzen ari den elkarte.

4.1. KARRIKIRIREN SORRERA

Iruñerrian elkarte eta erakunde ugari dago: hauetako batzuk errebindikazio munduan mugitzen dira, beste batzuk euskara erakusteko sortuak izan dira (euskaltegiak), kultura ekitaldiak antolatzen dituzten erakundeak ere badira, baina, hala ere, aurreko hamarkadan Karrikiri sortuko zuten kideek hutsune garrantzitsu bat ikusi zuten Iruñerriko euskalgintzan. Euskararen erabilera sustatzeaz arduratzen zen elkarerik ez zegoen garai hartan.

Euskaldunak euskara erabiltzeko zituzten zailtasunak ikusirik, 1995. urtean euskaltzale talde bat biltzen hasi zen, alde batetik, Iruñean euskara erabiltzeko zeuden bideak errazteko eta beste aldetik, oraindik landu gabe zeuden ildo edo bide berriak irekitzeko.

Txepetxen “Un futuro para nuestro pasado”n agertzen diren ideiak gidatuta euskaltzale talde honek argi ikusi zuen euskaldunon indarra zela euskara indartu zezakeen bakarra, ezin zirela beste erakundeen laguntzaren esperoan egon, lan eginez bakarrik lortuko zituztela euren helburuak.

Behin, abiapuntu teorikoa zehaztua zegoelarik eta beste hiri eta herrietako elkarteak eredutzat hartuz, euskaltzale talde hark Karrikiri elkarte sortu zuen, bere egoitza 1997. urtean irekiz.

4.2. KARRIKIRIREN HELBURUAK

Elkarte honen helburu nagusia Iruñea euskalduntzea da: Iruñean dauden euskaldunek beren bizitzako esparru guztietan euskaraz bizi ahal izatea.

Helburu zehatzagoak ondoko hauek:

- Euskaldun komunitatearen egituraketa lortzea da, euskaldunen arteko hartu-emanak sendotzea bizitza euskaraz burutu ahal izateko. Izan ere Iruñean, euskaldunak sakabanaturik daude, askotan euskaldunek ez dute elkar ezagutzen eta egoera honek euskararen erabilera oztopatzen du.
- Euskaldunen autoestima sendotzea eta handitzea.
- Iruñerrian euskaraz bizitzeko dauden guneak ezagutaraztea.
- Euskaraz hitz egiteko gune berriak sortzea.
- Euskararen erabilera modu ludiko batean sustatzea.
- Euskaldunen eta euskaltzaleen euskararekiko sentsibilizazioa piztea.
- Euskaldunen eta euskaltzaleen euskararekiko motibazioa piztea.
- Administrazioarekiko menpekotasunik ez izateko diru iturri propioak sortzea.

Karrikirik gizarte berri bat lortu nahi du: euskaldunon gizarte berri bat, orekatua, edonorentzat atek zabalik dituen. Gizarte hori euskararen ingurura hurbiltzen den edonorentzat erakargarria izan behar du gainera.

4.3. KARRIKIRIREN ANTOLAKETA ETA BALIABIDEAK


Elkarte honen egitura, beste Elkarte guztien moduan lehendakaria, diruzaina, idazkaria eta bokalez osatua dago. Horretaz gain, Karrikirik lan talde desberdinak ditu bere baitan, aurrera eramaten dituen ekintzen araberakoak. Ekintza bakoitzak bere arduraduna du eta astero arduradun guztiak bildu egiten dira lana hobeto antolatzeko. Horretaz gain, urtean behin, bazkide bilera nagusia ospatzen da.

Elkartean hainbat jendek musu truk lan egiten badu ere, soldatapeko langileak era baditu Karririkiri.

- Bulegari-teknikaria.
- Dendan lan egiten duten 2 saltzaile (garai berezietan laguntzaile bat ere).
- Itzulpengintzan: itzultzaile-zuzentzaile bat.

Karririkiri finantziaketa modu propioak sortu ditu administrazioarekiko menpekotasuna ahalik eta txikiena izan dadin. Bere diru iturri garrantzitsuenak bazkideak, denda eta itzulpengintza zerbitzua dira. Hala ere, administrazio publikotik ere diru laguntzak lortzen ditu: Iruñeko Udaletik, Nafarroako Gobernutik (Karrika aldizkaria kaleratzeko) eta Eusko Jaurlaritzatik.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, Karririkiri 1995. urtean 6 lagunez osatutako elkartea bazen ere, urtez urte bazkide kopurua igoz joan da eta aldi berean elkartea indartuz (1997. urtean 30 bazkide, 2006. urtean 157). Bazkide hauek hiruhilabetero 7 euroko kuota ordaintzen dute.



4.4. KARRIKIRIREN EKINTZAK

Bederatzi urte hauetan Karrikirik hainbat eta hainbat ekintza burutu ditu Iruñean euskararen erabilpena indartzeko eta euskal komunitatearen trinkotzea lortzeko. Hauetako batzuk elkarte honek bakarrik burutzen ditu baina beste batzuk, Iruñerriko beste elkarte batzuekin batera antolatzen ditu.

Atal honetan elkarteak azken urteotan burututako ekintza aipagarrienak izendatuko badira ere, lan honek Karrikirik egun martxan dituen zenbait ekintza zehaztasun handiagoz aztertuko ditu hurrengo ataletan.

Karrika aldizkaria

Karrika Karrikirik, 1997. urteaz geroztik, ia-ia hilabetero kaleratzen duen aldizkaria da, elkarteak burutzen dituen ekintzen berri emateko.

Karrikiri denda eta denda mugikorra

Karrikiri denda Karrikirik sortutako euskal produktuen denda da. Iruñeko alde zaharrea kokaturik dago Karrikiriren egoitzaren ondoan. Produktu desberdinak saltzen dira bertan: jantziak, jostailuak, diskak,...

Denda mugikorra Karrikirik Euskal Herrian ospatzen diren jaialdi eta ospakizunetan antolatzen duen denda da ospakizun hauetan euskal kultura zabaltzeko helburuarekin.

Ezetz asmatu lehiaketa

Euskaltegietako 6. urratsetik gorako ikasleekin kultura, geografia, musika, historia,... inguruko ezagutzak handitzeko antolatutako txapelketa da. Ekintza hau jadanik ez da burutzen ez baitzuen izan Karrikirik nahi bezainbesteko arrakastarik.

“Karrika gurea da”

Iruñeko karriketan euskararen presentzia bultzatzeko, komunitate euskalduna trinkotzeko eta erdaldunen artean euskararekiko maitasuna zabaltzeko urtero burutzen den jaia da.

Soziolinguistika ikastaroa

Iruñeko euskaltzaleek hizkuntzaren inguruko ezagutzak handitzeko urtero antolatzen den ikastaroa.

Merkataritzan euskaraz

Iruñeko hitzunei zerbitzuen esparruan euskara erabiltzeko dauden aukeren berri ematea da ekintza honen helburu nagusia. Aldi berean, zerbitzuetako langileei, dendariei batez ere, era mailakatu batean, euskararen erabilera areagotzeko laguntza ematea du xede ekimen honek. Merkataritza eta beste zerbitzuetako paisaia linguistikoa euskaraz edo elebiduna izaten lagundu nahi du Karrikirik ekintza honen bitartez.

Lan poltsa

Zerbitzu honen bidez, langile euskaldunei euskaraz lan egin ahal izateko aukera ematen zaie eta halaber enpresei eta banakakoei langile euskaldun bat kontratatzeko bidea erraztu.

Pisukideak zerbitzua

Zerbitzu honen bidez euskaldunei elkar ezagutzeko eta elkarrekin bizitzeko aukera eskaintzen zaie.

Itzulpengintza zerbitzua

Testuak itzultzeko zerbitzua da. Merkataritzan Euskaraz-en dauden denda-establezimenduei dohainik eskaintzen zaien zerbitzua izaten da. Beste motatako bezeroek zerbitzuarengatik ordaindu beharra dute.

Autokidea

Euskaldunen artean euskararen erabilera sustatzeko antolatutako egitasmoa. Iruñetik kanpo lan egitera joan behar duten euskaldunek elkarrekin bidaiatzea eta elkar ezagutzea da ekintza honen helburua. Orain arte, ekintza honek ez du arrakasta handirik izan.

Mintzakide

Mintzakide proiektuaren helburua euskara ikasten ari diren pertsonak euskararen erabilpen handia egiten duten pertsonekin harremanetan jartzea

da, hizkuntzaren ikaskuntza prozesua era natural batez indartzeko. Karririkiri ekintza honen sustatzaileetako bat da.

Trukesarea

Ekintza honen helburua ikastaroak antolatzea da, hau da euskaldunen arteko ikastaro trukaketa. Ekintza honek ez du arrakasta handirik izan eta jada ez da aurrera eramaten.

UEUren Udako Ikastaroen saio osagarriak

Karririkiri Udako ikastaroen saio osagarri moduan txangoak antolatzen ditu Iruñeko karriketetan barna, ikasleek Iruñeko alderdi euskalduna ezagutu dezaten.

Atun jana

San Ferminetan euskararen erabilera sustatzeko Karririkiri Zaldiko Maldiko elkartearekin batera antolatzen duen bazkaria da.

Euskarazko zinemaldia

Iruñean euskaldunei filmak euskaraz ikusi ahal izateko aukera ematen dien egitasmoa.

Ausartiak

Euskararen ezagutza areagotu eta indartzeko baliabideen bila dabilen jendeari laguntza eta aholkularitza emateko zerbitzua.

Karribus

Karririkiri orain abian jarriko duen ekimena da. Ekintza honen bitartez elkarteak hizkuntzaren erabilera eta gure herriaren ezagutza uztartu nahi ditu. Euskal Herriko txokoetatik txangoak egitea du helburu.








Webgunea

Karririkiri, egun, webgunea sortzeko lanetan ari da, internet bidez ere bere ekintzak zabaldu eta ezagutarazteko.

5. EKINTZEN AZTERKETA

Lanaren aurreko ataletan ikusi den moduan, proiektu honek Karrikirik egun martxan dituen zenbait ekintzen azterketa du helburu.

Aukeratutako ekintzak zazpi dira:

-  Karrikiri denda
-  "Karrika gurea da"
-  Merkataritzan Euskaraz
-  Itzulpengintza zerbitzua
-  Karrika aldizkaria
-  Lan poltsa
-  Pisukide zerbitzua

Ekintza hauek guztiak aspaldi sortu zituen Karrikirik eta oraindik ere martxan jarraitzen dute. Hauen iraupena izan da ekintza hauek aukeratzeko arrazoirik garrantzitsuena. Izan ere, lan honen bitartez ekintzen azalpena egiteaz gain ekintza bakoitzak bizi izan duen garapena eta eboluzioa aztertuko da. Baita ere ekintza hauekin lortutako emaitzak.

Hori dela eta, dagoeneko desagertu diren ekintzak alde batera utziko ditugu, baita orain martxan jartzen ari direnak ere, egitasmo horien azterketa egitea ezinezkoa litzatekeelako.

Gaur egun Karrikirik martxan dituen ekintzen artean lehen aipatutakoak aztertuko dira ondorengo lerroetan, ekintza berritzaileak dira eta interesgarriak izan daitezke beste lekuetara zabaldu edo egokitzeko.

5.1. KARRIKIRI DENDA ETA DENDA MUGIKORRA

5.1.1. EKINTZAREN DESKRIBAPENA

EKINTZA ANTOLATZEAREN ARRAZOIAK/BEHARRAK

Administrazioarekiko menpekotasun handirik ez izateko diru iturri propioak lortu nahi izan ditu Karrikirik betidanik. Baliabide ekonomikoak lortzen lagunduko zien ekintza bat antolatzeaz gain euskara sustatzeko balioko zuen egitasmoren baten bila hasi ziren elkarteko kideak.

Iruñean diru iturri izango zen denda bat sortzeko ideia otu zitzaien Karrikiriko kideei eta baita denda mugikorra ere, hau da, euskal ospakizunetan euskal kultura zabaltzeko erabiliko zen denda.

EKINTZAREN HELBURUAK

Ekintza hau sortzerakoan Karrikiriren asmoa bikoitza zen: alde batetik baliabide ekonomikoak lortzea erakundeekiko ahalik eta menpekotasun gutxien izateko eta bestetik euskaraz bizi nahi zuen jendeari laguntza ematea euskaraz bizi zedin.

Karrikiri denda, denda bat baino gehiago dela esan daiteke. Kanpaina desberdinak burutzen ditu urtean zehar: Olentzero kanpaina, Santa Ageda, iñauteriak, Sanfermin, gastronomia eta euskara, kirola eta euskara. Era honetan erosleak euskal kulturaren murgiltzeko ahalegina egiten du Karrikirik ekintza honen bitartez. Beste alde batetik landetxe euskaldunen zerrenda burutzen du oporrak euskaraz egin nahi dituzten bezeroei aukera hurbildu asmoz. Dantza taldeei begira ere lana handia egiten du Karrikiri dendak, jantziak, folk diskak,... eskuratuz eta salduz.

Umeentzako ere euskarazko material ugari saltzen da bertan. Umeendako euskal produktuek garrantzi handia dute Karrikiri dendan.

Denda mugikorraren helburuak antzekoak dira, euskara eta euskal kultura Euskal Herriko azoka eta ospakizunetan ezagutzera ematea eta, bide batez, elkartearendako diru iturri izatea.

EKINTZA AURRERA ERAMATEKO EMANDAKO URRATSAK

2002. urtean sortu zen Karrikiri denda. Garai hartan Karrikiriko kideak elkartearendako diru iturri bila zebiltzan. Iruñeko Donibane auzoan etxabe bat eskuratzeko aukera izan eta urte hartan bertan eta hilabete batean denda martxan jarri zuten. Duela urte bete denda lekuz aldatzeko erabakia hartu zuen Karrikirik eta egun Karrikiri denda elkartearen egoitzaren ondoan dago.

Dendarako materialak lortzeko hasiera batean Karrikiriko kideak Euskal Herriko beste dendetan saltzen ziren euskal produktuak ezagutzen ibili behar izan zuten.

Karrikiri dendan eta denda mugikorrean saltzen diren produktuek baldintza egokitan egindako produktuak izan behar dute, enpresa familiarretan sortzen diren produktuak hain zuzen ere.

Bai Karrikiri dendatik eta bai denda mugikorretik ateratzen diren etekin guztiak Karrikiriko ekintzak aurrera eramateko erabiltzen dira.

EROSLEEN EZAUGARRIAK/PERFILA

Dendan erosten duten erosleen %90a euskaltzaleak direla esan daiteke, eta erdia baino gehiago euskaldunak. Beste alde batetik, eta denda Iruñeko alde zaharrean kokatua dagoenetik, turista ugari gerturatzen da, gehien bat Kataluñakoak, Euskal Herriko beste herri batzuetakoak, italiarrak,...

SALTZEN DIREN PRODUKTUAK

Karrikiri dendan saltzen diren produktu guztiak euskal produktuak dira:

- Helduendako diska, DVD eta liburuak
- Umeendako diska, DVD liburu eta jostailuak

- Etxeko arropa: toallak, mantelak, mandarrak,...
- Kaleko arropa: marka euskaldun desberdinetako jantziak
- Bidezko mekartaritzako arropa
- Euskal Herriko elkarte eta erakundeen kamisetak (marka komertzialak ez direnak)
- Euskal jantziak
- San Ferminetako arropa
- Iñauterietako jantzi euskaldunak
- Lepokoak, belarritakoak, eraztunak,...
- Zeramikaz egindako apaingarriak

5.1.2. EKINTZAREN AZTERKETA ETA BALORAZIOA

Hurrengo taulan ikus daitezke ekintza honek dituen aukerak, indarguneak, mehatxuak eta ahuleziak.

AUKERAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskaltzale askoren laguntza ▪ Inguruko jendearen laguntza ▪ Turisten jarrera ona, denda desberdin bat topatzean ▪ Bezeroen fideltasuna 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hornitzaile batzuek ez dute Karrikiri dendak bere produktuak saltzerik nahi euskararekiko kontrakotasuna dela eta ▪ Elkarte ez da oso ezaguna ▪ Euskaltzaleekiko (ez euskaldunak) hurbilpen falta
INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Denda mugikorrarekin ezaguna bihurtzen ari da Karrikiri eta Karrikiri denda ▪ Elkarteko kideen sinismena ▪ Elkarteko kideen arteko harreman ona ▪ Saltzaile onak topatu izana ▪ Geroz eta profesionaltasun handiagoa 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Denda mugikorrak lan asko eskatzen du Karrikiriko kideentzat ▪ Kide gutxi lanean ▪ Ezjakintasuna ▪ Denda aurrera ateratzeko beste esparru batzuk alde batera utzi beharra

Karririkirik dendarekin oraindik ez du etekin ekonomikorik lortu, baina kideek uste dute etekinak lortuko dituztela hemendik denbora gutxira.

- Denda eta egoitza elkarren ondoan egonda ezaguna bihurtu da bai Karririkiri eta baita denda ere. Karrikirira hurbiltzen denak denda ezagutzen du eta alderantziz, dendara hurbiltzen dena Karririkiri euskara elkarte ezagutzeko aukera izaten du. Bulegoa eta denda elkarrekin egoteak gastu murrizketa ere ekarri du.
- Karririkiri dendan dauden produktuak geroz eta gehiago dira eta geroz eta eskaintza osatuagoa egiten da.
- Haurrentzako jostailuei buruzko gomendioak ematerakoan ere ezagutza handiagotzen ari dira.
- Bezero askoren fideltasuna lortu dute orain arte.

Dendaren proiektua apostu garrantzitsua da Karrikirirentzat. Karrikiriko kideek uste dute hemendik urte gutxira Karririkiri dendak garrantzi handia hartuko duela eta esparru berrietara iritsiko dela.

Euskaldun ez diren euskaltzaleekiko hurbilpen falta nabari dute Karrikiriko kideek. Pertsona horiengana iristea da, hain zuzen ere, Karririkiri dendaren erronketako bat, haiei zuzendutako publizitate kanpaina eraginkorragoak eginez.

5.2. KARRIKA GUREA DA

5.2.1. EKINTZAREN DESKRIBAPENA

EKINTZA ANTOLATZEAREN ARRAZIOAK/BEHARRAK

“Karrika gurea da” orain dela lau urte sortutako egitasmoa da. Garai hartan Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren euskararen bazterketa nahia ikusita Karrikiri elkarteak Zaldiko Maldiko elkartearekin batera ekintza hau martxan jarri zuen, Iruñean, oztopoak oztopo, euskaraz bizi nahi zuen jendea bazegoela erakutsi asmoz.

Euskara beti egon da oso lotuta errebindikazio munduarekin eta Karrikirik jai honen bitartez euskararen beste alderdi bat aldarrikatu nahi izan du, alderdi ludikoa hain zuzen ere.

EKINTZAREN HELBURUAK

Karrikirik ekintza honen bidez lortu nahi zituen/dituen helburuak honako hauek dira:

- ✚ Euskara kalean arrotza ez izatea
- ✚ Iruñean euskaraz bizi nahi duen jendea badagoela erakustea
- ✚ Euskarazko festa ireki bat antolatzea
- ✚ Erdaldunak animatzea euskara ikas dezaten.
- ✚ Euskara ikasi dutenek hizkuntza berrerabiltzea.

EKINTZA AURRERA ERAMATEKO EMANDAKO URRATSAK

Ekintza aurrera eramateko Karrikiri eta Zaldiko Maldiko elkarteak Iruñeko beste zenbait talderekin harremanetan jarri ziren. Hauetako talde batzuk musu truk parte hartzen dute egitasmoan eta besteek aldiz udalak Iruñeko elkartei ematen dien diru laguntzen bitartez.

“Karrika gurea da” festa Iruñeko kaleetatik burutzen da eta talde kultural ezberdinek parte hartzen dute bertan.

Jaian parte hartzen duten pertsoneri Karrikiriren pegatinak eta hizkuntza ezberdinetan idatzitako orriak banatzen zaizkie jaiaren zergatia azaltzeko.

Ekintza ezagutzera emateko Karrikirik bere aldizkarian (Karrika-n) iragarkiak jartzen ditu eta baita Euskal Herria Irratian ere. Horretaz gain kartelak ipintzen dituzte Iruñeko kaleetan.

Jaia urtero ospatzen da bi edo hiru aldiz urte bakoitzeko.

“KARRIKA GUREA DA”-N PARTE HARTZEN DUTEN TALDEAK

“Karrika gurea da”-n parte hartzen duten taldeak kulturaren alorreko elkarteak izaten dira batez ere: folklore dantza taldeak, gaitariak, trikitilariak, albokariak, abesbatzak, txistulariak, joaldunak, marrazkilariak,... Urtez urte ekintzan parte hartzen duten talde hauen kopurua igoz doa.

5.2.2. EKINTZAREN AZTERKETA ETA BALORAZIOA

Hurrengo taulan ikus daitezke ekintza honek dituen aukerak, indarguneak, mehatxuak eta ahuleziak.

AUKERAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Talde batzuk jaiarekin oso fidelak dira ▪ Jendearen jarrera ona ▪ Jendearen parte hartze handia ▪ Jaia geroz eta ezagunagoa bihurtzen ari da 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Nahi baino talde gutxiagok parte hartzen du ospakizunean ▪ Parte hartzen duten talde batzuek jaiaren filosofia ondo ez ulertzea. ▪ Musu truk egiten den ekintza izatea.
INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Jaia oso ondo antolatuta egotea ▪ Arazoak aurre ikusi eta saihesteko moduak aurkitzea 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Baliabide ekonomiko eskasak ▪ Talde gehiagoren parte hartzea lortzeko zailtasunak

Ekintza honek orain arte ondorio baikorrak izan ditu. Urtez urte jaia ospetsuago bihurtu da eta taldeen parte hartzea areagotu egin da aldi berean. Azken urteetako ospakizunetan 200-300 pertsona inguruk hartu dute parte.

Karrikiriko kideak orain arte lortutako emaitzekin pozik badaude ere, hurrengo urteetan emaitza oparagoak lortu nahi dituzte.

Erronkarik handiena talde gehiagoren parte hartzea lortzea da, Iruñeko dantza taldeak eta peñen federazioa egitasmo honetan inplikatzeko esate baterako.

“Karrika gurea da” urtean zehar bi edo hiru bider ospatzen bada ere, Karrikiriren asmoa jaiaren maiztasuna handitzea da eta urtean zehar behintzat lau egunetan euskararen erabilera sustatzeko kalera ateratzea.

Karrikirik ekintza honekin planteatu zituen helburuak bete diren jakitea ez da erraza baina egia da geroz eta euskara gehiago entzuten dela Iruñeko kaleetan, euskarazko festa ireki bat antolatzea lortu dutela eta geroz eta ohitura gehiago dagoela Iruñeko kaleetan antzeko ekitaldiak burutzeko.

5.3. MERKATARITZAN EUSKARAZ

5.3.1. EKINTZAREN DESKRIBAPENA

EKINTZA ANTOLATZEAREN ARRAZIOAK/BEHARRAK

Iruñean oso zaila izan da beti denda batera edo komertzio batera gerturatu eta euskaraz hitz egin ahal izatea. Alde batetik komertzioaren arduradunak gehienetan ez duelako jakiten bezeroak euskaraz dakien ala ez eta, beste aldetik, bezeroak ez dituelako komertzio euskaldunak ezagutzen. Hori dela eta Karrikirik beste herri batzuetan burutzen ari ziren egitasmoak ikusiz Merkataritzan euskaraz sortu zuen, Iruñeko hitzunei zerbitzuen esparruan euskara erabiltzeko dauden aukeren berri emateko helburuarekin.

Nafarroako beste herri batzuetan udalek eramaten dituzte aurrera halako egitasmoak. Merkataritza gaur egungo gizartean oso iharduera garrantzitsua da eta, hori dela eta, beste zenbait herritan merkataritza euskalduntzeko ekintzak burutu izan dira. Udal hauek bere gain hartu dute komertzio euskaldunen errolda egiteko lana, zerbitzua euskaraz eskaini ahal izateko.

Iruñeko udalak arlo horretan inolako lanik egiten ez zuela ikusita, Karrikirik lan hori bere gain hartzea erabaki zuen 1999. urteaz geroztik.

EKINTZAREN HELBURUAK

Helburu desberdinak lortu nahi ditu Karrikirik ekintza honen bitartez:

- ✚ Sentsibilizazioa: Merkatariek zerbitzuen eskaintza euskaraz egiteko konbentzitu eta animatzea.
- ✚ Komertzioei laguntza: Merkatariek zerbitzua euskaraz emateko laguntza, era mailakatu batean, eskaintzea itzulpengintza zerbitzuaren bitartez.

- ✚ Komertzioen identifikazioa: Komertzioak identifikatu erosleen euskararen erabilpena bultzatzeko erroldan agertzen diren zerbitzuetan. Era honetan jendeak euskaraz non eska dezakeen jakin dezake.

EKINTZA AURRERA ERAMATEKO EMANDAKO URRATSAK: METODOLOGIA

Bortzirietan antzeko ekintza bat aurrera eramaten ari ziren garai hartan, 1999. urte inguruan. Karrikiri egitasmo hau Iruñera egokitzeko Bortzirietako ekintzaren arduradunekin harremanetan jarri zen.

Hasiera batean, establezimendu euskaldunak topatzeko laguntza elkarteko kideen ezagunei eskatu zitzairen. Karrika aldizkariaren bidez ere komertzio euskaldunak ezagutzen zituen jendeari Karrikirira hurbiltzeko gonbitea egin zitzairen, ezagutzen zituen komertzio euskaldunak zeintzuk ziren esateko.

Esparru geografikoen arabera antolatu ziren identifikatutako komertzioak. Iruñeko alde zaharreko komertzioak izan ziren Karririko kideek bisitatu zituzten lehendabizikoak. Bertara hurbildu, proiektua azaldu eta beren atxikimendua eskatzen zitzairen komertzioetako arduradunei Karrikirik ezarritako baldintzak betetzen bazituzten. Alde zaharretik hasita ekintza Iruñeko beste auzotara zabaldu zen: Bigarren zabalgunea, Iturrama, Donibane, Txantrea,... auzoka egin zen prozesua.

Inoiz ez da proiektuari buruzko informazioa komertzio guztietara bidali baliabide faltarengatik batez ere.

Hitzarmena sinatzen duten komertzio guztiei pegatina bat eman zaie erosleak komertzio euskalduna dela jakin dezan. Horretaz gain, pegatina nahikoa ez izateagatik, komertzio euskaldunen errolda jasotzen duten liburuxkak ere argitaratzen ditu urtero Karrikirik. Hitzarmena sinatzen duten komertzioen ikuskaritza egiten da urtero zerrenda eguneratua egon dadin.

Ekintza hau komertzio txikietara zuzendu da batez ere. Enpresa edo komertzio handiagoetan eragitea zaila bihurtzen ari da, kasu gehienetan komertzio handiak multinazionalak direlako.

KOMERTZIOEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Ekintza honetan parte hartzeko komertzio guztiek baldintza zehatz batzuk bete behar dituzte:

- ✚ Irekita dauden ordu guztietan langile euskaldunen bat izan behar dute lanean, hizkuntza maila gutxieneko batekin.
- ✚ Komertzioaren sarreran pegatina jartzea erosleek komertzio horretan euskaraz egin dezaketela jakin dezaten.
- ✚ Hasieran, beheko solairuan zeuden komertzioak izan behar zuten eta mostradorea izan behar zuten aldi berean (orain baldintza hori ez da kontutan hartzen).

HITZARMENA SINATZEN DUTEN ENPRESEI ESKAINTZEN ZAIEN ZERBITZUA

Alde batetik merkatarien erroldan agertzen dira hitzarmena sinatzen duten komertzio guztiak, beraz, Karrikirik komertzio hauei publizitatea egiten die. Azken urtean 9.500 esku paper eta 500 kartel egin dira. Esku paper eta kartel hauetan establezimenduak jardueraka eta alfabetikoki sailkatzen dira. Establezimenduak mapa batean agertzen dira eta beren telefonoa ere eskuragarri dago.

Horretaz gain Karrikirik itzulpengintza zerbitzua eskuragarri jartzen du komertzio hauentzat. Karrikirik komertzio hauei egiten dizkien itzulpenak publikoak izan behar dute, hau da, erosleek ikusiko dituzten kartel edo inprimakienak. Bezeroekin harremanerako erabiliko den edozein idazkiren itzulpenaz arduratzen da Karrikiri. Bi orrialdeko muga du itzulpenak, luzeagoa izanez gero itzulpena kobratu egiten da. Dena den, komertzioek ez dute itzulpen gehiegi eskatzen.


HITZARMEN SINATZEN DUTEN ENPRESEN EZAUGARRIAK

Hitzarmena sinatzen duten enpresak tamaina txikiko komertzioak dira, merkataritza aritzen direnak. Hitzarmena sinatu duten enpresen artean honako hauek aurki daitezke: tabernak-jatetxeak, janari dendak, arropa-kirol dendak, ileapaindegiak eta estetika zentroak, liburudendak eta paper dendak, opari dendak, argazki dendak, loradendak, autoeskolak,... 2005. urteaz geroztik merkataritza mundutik beste motatako esparruetara zabaltzen ari da ekintza: laguntza juridikoa, arkitektoak,...

2005. urteko komertzioak honela sailkatzen dira lan arloaren arabera:

LAN ARLOA	KOMERTZIO KOPURUA	PORTZENTAIA KOPURU OSOAREKIKO
Tabernak eta jatetxeak	26	%17,8
Janaridendak	16	%11,0
Arropa, kirloak	20	%13,7
Ileapaindegiak, estetika-zentroak	6	%4,1
Liburudendak, paperdendak	11	%7,5
Opariak, argazki dendak, loradendak	14	%9,6
Laguntza juridikoa	16	%11,0
Autoeskolak, aseguruak	5	%3,4
Arkitektoak	3	%2,1
Bestelakoak	29	%19,9
GUZTIRA	146	%100

Hitzarmena sinatu duten komertzioen sailkapena (2005. urtea)



HITZARMENA SINATU NAHI EZ DUTEN ENPRESEK EMANDAKO ARRAZOIAK

Hitzarmena sinatu nahi ez duten enpresak ez dira asko, euskaldunak baldin badira. Gehienetan hitzarmena sinatu nahi ez izateko bi arrazoi izaten dira:

- ✚ Zerbitzua euskaraz emateko gai ez izateko beldurra.
- ✚ Auzoaren arabera bezeroen erreakzioaren beldurra, bezeroak galtzeko beldurra.

5.3.2. EKINTZAREN AZTERKETA ETA BALORAZIOA

Hurrengo taulan ikus daitezke ekintza honek dituen aukerak, indarguneak, mehatxuak eta ahuleziak.

AUKERAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Jasotako diru laguntzak ▪ Jendearen jarrera laguntzailea ▪ Jendea Karrikirirekin kontaktuan jartzea ekintzarengatik galdetuz 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Testuingurua: euskara gaizki ikusita egotea zenbait esparrutan ▪ Komertzioetan bezeroak galtzeko beldurra ▪ Beste hizkuntza batzuk lehian egotea ▪ Merkataritza sektore mugikorra izatea ▪ Komertzio handiak multinazionalak izatea
INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Urte guzti hauetako esperientzia ▪ Karrikiri merkataritza askorentzat erreferente bihurtu izana ▪ Komertzioen errolda edo zerrenda ▪ Karrika aldizkariaren bitartez lortutako laguntzak 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Neurketa falta: ekintzaren balorazioa egiteko bere bilakaeraren azterketaren falta ▪ Baliabide falta: itzultzaile gutxi itzulpen guztiak egiteko

Karrikirik Merkataritzan euskararen bitartez honako helburuak lortu ditu urte hauetan guztietan:

- ✚ Iruñean ere euskaraz saldu eta eros daitekeela kaleratzea eta erakustea.
- ✚ Establezimenduetan sartzen diren euskaldunak euskaraz eskatzeko eta hitz egiteko ohitura hartu dute kasu gehienetan.
- ✚ Iruñeko paisaia linguistikoa neurri batean euskaldundu egin da.

Karrikiriko kideak orokorrean pozik agertzen dira ekintza honen bitartez lortutako helburuekin. Urtez urte, komertzio euskaldunen kopuruak gora egin du eta honekin batera euskararen erabilerak ere.

1999-2003. urtea bitartean 100 denda inguruk sinatu zuten hitzarmena, garai honetan bisitatutako 60 komertziok, berriz, ez zuen hitzarmena sinatu nahi izan.

2005. urtean, Iruñean 146 komertzio zegoen erroldan, Berriozarren 4, Burlatan 5, Atarrabian 15 eta Uharten 3. Azken bi urteetan 46 komertziok sinatu dute hitzarmena.

Ekintza Iruñeko auzo guztietara zabaltzea lortu du Karrikirik. Hasieran ekintza alde zaharrean hasi bazen ere, auzo guztietako komertzioak jasotzen dira orain Karrikiriren erroldan. Hala ere, baliabide falta dela eta, orain arte Karrikirik ezin izan du lortu euskarazko eskaera euskalduntzeko erronka.

Eskaintza euskalduntzeaz gain eskaera ere euskalduntzea behar beharrezkoa dela uste dute Karrikiriko kideek. Horretarako azterketa sakon bat egin beharko litzateke bezeroek euskaraz zergatik ez duten eskatzen, euskaraz eskatzeko orduan topatzen dituzten oztopoak,... ezagutzeko.

Horretaz gain, euskararen erabilera helburuak bete diren jakitea zaila da Karrikirirentzat, elkarteak ez baitu erabilera neurtzeko baliabide nahikorik.

Karrikirik bere mehatxu eta ahuleziak kontutan izanda, ekintzaren lorpenak hobetzeko hurrengo saiakerak egin nahiko lituzke epe luzera:

- ✚ Egitasmoaren jarraipen erreala.
- ✚ Ikuskaritza urtean behin egin ordez urtean hirutan egitea.
- ✚ Merkatariekin harremana jarraia goa izatea.
- ✚ Eskaera neurri handiagoan euskalduntzea.
- ✚ Merkatariari behar duten laguntza eskaintzen jarraitzea.

5.4. ITZULPENGINTZA ZERBITZUA

5.4.1. EKINTZAREN DESKRIBAPENA

EKINTZA ANTOLATZEAREN ARRAZOIAK/BEHARRAK

Nahiz eta Iruñerrian euskaldun kopuru garrantzitsua egon, euskaldunek gehienetan ez dute komertzioetako eta beste lekuetako informazioa euskaraz jasotzeko aukerarik.

Inprimakiak eta informazioa euskaraz zabaltzeko kontzientzia duten komertzioek ere, askotan, ez dute itzulpenak egiteko baliabide edo tresnarik. Hori dela eta, Karrikirik Merkataritzan euskaraz hitzarmena sinatu duten komertzioei laguntza ematen die beren zerbitzua euskaraz ere eskaini dezaten.

Horretaz gain beste edonork eskatutako itzulpenak ere egiten ditu Karrikirik, kasu honetan, eskainitako zerbitzuarengatik kobratu egiten duelarik.

EKINTZAREN HELBURUAK

Ekintzaren helburu nagusia testuen, txostenen, inprimakien, kartelen... itzulpenak egitea da. Era honetan euskaldunei informazioa euskaraz jasotzeko aukera emanez.

EKINTZA AURRERA ERAMATEKO EMANDAKO URRATSAK: METODOLOGÍA

Behin bezeroa elkartearekin harremanetan jartzen denean, itzuli beharreko testua elkartera igorri behar du (Word formatoan). Karrikiriko itzultzaileak itzulpena egiten du eta ondoren zuzentzaileak zuzendu egiten du eta bulegariak bezeroari testuaren itzulpena bidali eta fakturatu egiten du.

Bezeroak berriak direnean aurretik testuaren itzulpenaren aurrekontua egiten da eta onartuz gero aurretik aipatutako prozesua jarraitzen da.

Merkataritzan euskara hitzarmena sinatzen duten komertzioei itzulpen txikiak dohain egiten zaizkie beti ere publikoari zuzendutako testuak badira eta gehienez bi orrialdeko luzera badute.

Beste motatako itzulpenei eta beste bezeroek eskatutako itzulpenei Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarteak, EIZIE, gomendatutako tarifa ezartzen zaie, hau da, 0,0095 zentimo karakterreko hutsuneak barne.

BEZEROEN EZAUGARRIAK

Bezeroak alde batetik, eta lehen esan bezala, merkataritzan euskaraz hitzarmena sinatzen duten komertzioak dira eta beste alde batetik beste motatako enpresak, komiteak, sindikatuak,... Bezero hauek guztiak beren bezeroak zaindu nahi dituzten enpresak dira.

ITZULPEN MOTAK

Karrikirik egiten dituen itzulpenak hurrengoak izaten dira: aktak, gutunak, jatetxeetako menuak, eskaintzak, kanpainetako testuak,...

5.4.2. EKINTZAREN AZTERKETA ETA BALORAZIOA

Hurrengo taulan ikus daitezke ekintza honek dituen aukerak, indarguneak, mehatxuak eta ahuleziak:

AUKERAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Itzulpenen eskaerak gora egiten du ▪ Itzulpengintzan ezaguna da Karrikiri ▪ Bezero kopuru polita du 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Itzulpenen prezioa, zerbitzua eskaintzeagatik kobratu behar izatea
INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Elkarteko kideen laguntza ▪ Nominapean ez dauden itzultzaileen laguntza 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Itzultzaileen bestelako lanak ▪ Itzultzaileak nominapean ez edukitzea

Ekintza honen bitartez Karrikirik bilatzen duen helburua urtez urte bete egiten da. Zerbitzuaren bidez euskaldunek bere inguruko enpresa eta dendetatik informazioa euskaraz jasotzeko aukera gehiago dute. Horretaz gain zerbitzu honek irabazi ekonomikoak ematen dizkio elkarteari.

Karrikiriren zerbitzu hau ezaguna bihurtu da eta itzulpenen kopurua gora doa. Urteko 100 itzulpen inguru burutu izan ditu orain arte Karrikirik. 2006. urteko lehendabiziko lau hilabetekoan 35 itzulpen egin ditu jadanik, ziurrenik aurreko urteetako kopurua gainditu egingen du aurten.

5.5. KARRIKA ALDIZKARIA

5.5.1. EKINTZAREN DESKRIBAPENA

EKINTZA ANTOLATZEAREN ARRAZOIAK/BEHARRAK

Karrikirik hastapenetatik garbi izan zuen tresna bat beharrezkoa zuela euskal komunitatera iristeko eta era honetan elkartearen barneko kontuen berri emateko. Tresna hori ez zuen izan behar beste herrietan egiten ziren herri aldizkarien antzekoa, elkartearen hedabide baizik. Karrikirik euskal komunitateari esan nahi dizkion gauzak helarazteko tresna da Karrika. 1997. urtean argitaratu zen lehendabiziko alea.

EKINTZAREN HELBURUAK

Ekintza honen helburu nagusia euskal komunitatearengana normaltasunez iristea da, ez bakarrik Karrikiriko bazkideengana, baizik eta euskaldun gehiagorengana, Karrika jasotzen duten lagunak 2.300 baitira.

Aldizkarian Karrikirik aztertzen dituen gaiak ezagutaraztea da ekintza honen asmoa, euskararekin erlazionatutako gaiak beti ere. Aldizkariaren atal bakoitzak bere helburu zehatzak ditu.

EKINTZA AURRERA ERAMATEKO EMANDAKO URRATSAK: METODOLOGÍA

Hasiera batean karrika aldizkariaren itxura ez zen oraingo berbera. Kazetaritzaz zekiten bi kide hasi ziren proiektu honetan lanean. Aldizkariaren izenari garrantzi handia eman zioten hasiera batean, Karrikiri izena jartzea erabaki zutelarik (Karrika + hiri). Aldi berean, aldizkaria nola bideratu zitekeen pentsatzen hasi ziren. Aldizkari xumea izan arren Karrikiriren aurrekontuaren zati handi bat beharrezkoa da Karrika aldizkaria aurrera eramateko. Edukiak eta atalak pentsatu zituzten ere eta proiektua martxan

jarri zen 1997. urtean. Urtez urte atal batzuk mantendu eta beste batzuk berriz aldatu egin dira.

ALDIZKARIAREN ATALAK ETA HAUEN HELBURUAK

Gaur egun 8 orrialdetako aldizkaritxo da Karrika eta atal hauek osatua dago:

Azaleko artikulua: Aldizkariaren lehendabiziko aletik orain arte mantendu den atala da azaleko artikulua. Atal honi garrantzi handia eman dio beti Karrikirik eduki "filosofikoa" izateagatik. Soziolinguistika eta euskalgintzako gaiak lantzen dira atal honetan, modu errazean, irakurlegoari hurbiltzeko asmoz. Irakurlegoaren sentsibilizazioa lantzea du helburu aldizkariaren lehendabiziko orrialdean kokatzen den artikulua honek.

Agenda: Agenda aldizkariak hasieratik mantendu duen beste atala dugu. Nahiz eta Iruñea oso handia ez izan euskal kulturarekin lotura duten ekitaldiak nahiko modu deskoordinatuan antolatu izan dira beti. Atal honen bitartez Iruñerrian antolatzen diren ekitaldi, jai eta ospakizun guztien berri ematen die Karrikirik irakurleei.

Elkarte guztiek Karrikirirengana jo dezakete beren ekitaldi guztien berri emateko. Modu horretan hilabetearen hasieran, euskaldunek erreferentzia bat izan dezakete bere aisialdian ere euskaraz bizitzeko. Euskal elkarteek elkarlanean ez aritzeagatik sortzen diren gabeziei erantzuteko sortu zen atal hau.

Barnetik kanpora: Karrikiri elkartearen barruan gertatzen diren kontuen berri ematea du helburu atal honek. Barne funtzionamenduaren, elkartearen proiektuen,... azalpena.

Herrien eleak: Atal hau orain dela urte bi jarri zen martxan. Egoera gutxiagotuan dauden beste hizkuntzak ezagutzera emateko asmoa du atal honek. Karrika Iruñera etorritako etorkinen hizkuntzak modu sinple batean

aztertzeaz arduratu da. Ezagutzen ez ditugun hizkuntza asko daudela ohartzeko balio du atal honek.

Zenbat buru hainbat aburu: Karrikirirentzat interesgarriak diren euskal munduko pertsonaiei egindako elkarrizketak azaltzen dira atal honetan: artistak, elkarteetako arduradunak, idazleak,...

Era berean atal honekin Karrikirik ezagutzera eman nahi ditu euskaldunak diren eta euskaraz ikasteaz arduratu diren Iruñeko zenbait pertsona.

Zaldi eroaren komikia: ale guztietan Zaldi eroaren komikia agertzen da. Modu dibertigarri batean euskararen inguruan gogoeta eragitea du helburu.

ALDIZKARIAREN ARGITALPENA

Aldizkariaren lehendabiziko alea 1997. urtean argitaratu zen eta aurten 100. alea argitaratu berri du Karrikirik. 3.500 aleko tirada egiten da eta horietako 2.300 ale etxeetan banatzen dira Iruñerrian batez ere, Euskal Herriko beste zenbait tokitan (Iparraldean 4), Europan 3, eta Estatu Espainolean 55. Beste aleak ikastetxeetan, euskaltegietan, erakundeetan banatzen dira.

Urte bakoitzeko 10 ale kaleratzen dira (abuztuan ez da aldizkaririk argitaratzen eta azaroa eta abenduko aleak batera argitaratzen dira).

5.5.2. EKINTZAREN AZTERKETA ETA BALORAZIOA

Hurrengo taulan ikus daitezke ekintza honek dituen aukerak, indarguneak, mehatxuak eta ahuleziak:

AUKERAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Dohako aldizkaria da ▪ Urteekin euskal komunitatearen barnean tokia izatea lortu da ▪ Geroz eta ezagunagoa da ▪ Jendearen jarrera ona elkarriketa eske joatean edo laguntza eskatzean ▪ Beste komunikabideen laguntza ▪ Hizkuntza Eskolan erabilia izatea 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskaldun batzuen laguntza edo motibazio falta ▪ Diru laguntzen murrizketa ▪ Garestia da aldizkaria argitaratzea: inprenta eta banaketa batez ere ▪ Ez da saltzeko moduko aldizkaria
INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Jende askok egin du lan proiektu honetan eta ideia berriak sortuz joan dira ▪ Elkarteko kideen interesa eta motibazioa ▪ Urteetako esperientzia 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aldizkaria boluntarioek egiten dute, soldatapeko langilerik ez da horretan aritzen ▪ Denbora falta ▪ Koordinazioa batzuetan zaildu egiten da kideek dituzten beste lanengatik ▪ Jende berri eta ideia berrien falta

Karrikiri elkarte ezagutzen duen jendeak Karrika aldizkaria ere ezagutzen du eta Karrikaren bidez Karrikiriren berri izan dezake. Momentuz ezin da jakin

irakurleek aldizkaria irakurtzen dutenentz baina behintzat Karrikirik egiten dituen ekintzen berri jasotzen dute honen bitartez.

Karrikiriko kideek duela urte batzuk inkesta bat burutu zuten irakurleen aldizkariari buruzko iritzia jakiteko eta gutxi batzuek erantzun bazuten ere, oro har, aldizkariarenganako harrera nahiko ona zela egiaztatzeko aukera izan zuten.

Aldizkaria Karrikiriren hedabide izatea lortu dute eta baita euskal komunitatearekin harremanetan jartzeko bidea izatea. 100. alea argitaratzea ere lorpen handia izan da beraiantzat.

Oraindik gauza asko hobe daitezke baina horretarako giza baliabide handiagoak ezinbestekoak dira. Jende berriarekin, diru laguntza handiagoekin eta denbora gehiagorekin aldizkari txukunagoa egiteko aukera izango lukete Karrikiriko kideek.

Hobetzeko beste modu bat aldizkariaren jarraipena egitea izango litzateke, irakurlegoaren iritzia maiztasun handiagoz aztertzeke, inkesta baten bidez edo beste motatako tresnen bidez.

5.6. LAN POLTSA

5.6.1. EKINTZAREN DESKRIBAPENA

EKINTZA ANTOLATZEAREN ARRAZOIAK/BEHARRAK

Iruñean euskaraz lan egiteko zeuden aukera eskasak ikusita Karrikirik egitasmo hau martxan jartzea erabaki zuen 1999. urtean. Nahiz eta euskaraz lan egin nahi duten euskaldunak egon bai Nafarroan eta bai Iruñerrian, zaila izaten zen hauentzat euskarazko lanpostuak lortzea. Hori dela eta langile euskaldunak behar zituzten enpresa-dendak eta euskaraz aritu nahi zuten pertsonak harremanetan jartzea erabaki zuen Karrikirik.

EKINTZAREN HELBURUAK

Karrikirik ekintza honen bitartez bi helburu lortu nahi du: alde batetik euskara lan mundura zabaltzea, eta era berean, euskaldunei beharrezkoa den zerbitzua dohain ematea.

EKINTZA AURRERA ERAMATEKO EMANDAKO URRATSAK: METODOLOGIA

Ekintza aurrera eramateko orduan egindako lehendabiziko gauza egitasmoa ezagutaraztea izan zen, gehien bat Karrika aldizkariaren bitartez. Izena eman zuten euskaldunekin datu basea sortu zen. Azken urteetan datu basea handituz joan da eta arreta berezia eskaini zaio publizitateari eta enpresekin harremanak mantentzeari ere.

Lan bila dabilen pertsonaren datuak jaso egiten dira Karrikirin, lan eskatzailearen ikasketak eta prestutasuna jasotzen dira beste zenbait daturekin batera. Lan eskaintzak jasotzerakoan informazio hori guztia eskaintzarekin alderatu eta posta elektronikoz eskaintza bidali egiten zaie datu basean izena eman duten eta eskatutako perfila betetzen duten

euskaldunei. Aldi berean, langile eske dabilenari hautagai posibleen zerrenda igortzen zaio.

Datu basea eguneratzea zaila izaten da askotan lanean hasten diren pertsonak batzuetan ez direlako zerbitzuan baja ematen.

LAN ESKAINTZA MOTAK

Haurrak zaintzeko eta klase partikularrak emateko (guraso euskaldun eta erdaldunak) lan eskaintza ugari iristen dira Karrikirira. Tabernetan eta jatetxeetan lan egiteko aukerak ere ugariak izaten dira.

Azken urteetan eskaintza mota dibertsifikatu egin da: euskalgintza inguruan, dendetan, telefonista modura,... lan egiteko aukerak sortu direlarik.

LAN ESKATZAILEEN PERFILA

Lan eskatzaileak batez ere ikasleak dira, lantxoren baten bila dabiltzanak. Hala ere, gero eta gehiago dira ikasketak bukatuta lan poltsan izena ematen duten euskaldunak. Lan poltsan dauden % 60-70 goi mailako ikasketak dituzte.

5.6.2. EKINTZAREN AZTERKETA ETA BALORAZIOA


Hurrengo taulan ikus daitezke ekintza honek dituen aukerak, indarguneak, mehatxuak eta ahuleziak:

AUKERAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ahoz aho zerbitzua ezaguna bihurtzen ari da ▪ Merkataritzan euskaraz hitzarmena sinatu duten enpresek zerbitzua ezagutzen dute eta lan eskaintzak bidaltzen dituzte ▪ Lan eskaintzen dibertsifikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Enpresa asko euskarazko zerbitzua ematearen beldur dira, bezeroak galtzeko arriskuarengatik
INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Beharrezko zerbitzua eskaintzen du Karrikirik ▪ Elkarteko kideen gogo eta motibazioa ▪ Elkarteko kideen lana 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ekintza burutzeko baliabide ekonomikoen eskasia

Ekintza honek fruitu oparoak eman ditu orain arte. Eragin handia izan dezake euskararentzako denda eta enpresetan langile euskaldunak egotea. Gero eta jende gehiagok egiten du langile euskaldunak izateko eskaera. Interesa pizten ari da pixkanaka pixkanaka. Era honetan euskarak lan munduan behar duen tokia ematen saiatzen ari da Karrikiri.


Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan gero eta gehiago dira urte bakoitzean Karrikirik jaso dituen lan eskaintzak:

Lan eskaintza kopurua urtez urte



2002. urtean 64 lan eskaintza izan ziren. Hurrengo urtean, 2003.ean eskaintzek behera egin bazuten ere (2 gutxiago), 2004.ean gorakada garrantzitsua egon zen lan eskaintzak bikoiztu zirelarik (135 lan eskaintza). 2005. urtean 140. eskaintza egon ziren eta aurtengo maiatzera bitarte 35 inguru.

Lan poltsan urtez urte erregistratutako pertsona kopurua



2000-2003 urteetan 103 pertsona erregistratu ziren Karrikiriko lan poltsan. 2004. urtean kopuru hau 242ra igo zen. 2005. urtean erregistratutako pertsonen kopurua 321koa izan. Momentuan datu basean 249 lagun daude. Kontuan izan behar da izena eman, denboraldi batean egon eta behin lana aurkitu ondoren baja eman dutela askok. Guztira

Karrikiriko datu basetik 400 bat lagun pasa izan dira urte hauetan guztietan.

Ekintzari buruzko balorazioa baikorra da, urtez urte, bai eskaintza kopurua eta bai lan eskatzaile kopurua igo baita. Hala ere, ekintza hau hobetzeko beharrezkoa litzateke egitasmo hau era zabalago batean ezagutzera ematea.

Publizitatea egiteko ezinbestekoa da komunikabideetan agertzea eta merkataritzan euskaraz hitzarmena sinatu duten komertzio eta enpresei gutunez gogoraraztea zerbitzu hau eskuragarri dutela.

5.7. PISUKIDEAK ZERBITZUA

5.7.1. EKINTZAREN DESKRIBAPENA

EKINTZA ANTOLATZEAREN ARRAZOIAK/BEHARRAK

Karrikiri elkartearen helburu nagusietako bat euskaldunen artean harremanak burutzeko sortzen diren oztopoak gainditzeko zerbitzuak ugaritu eta hobetzea da. Helburu hori jarraituz, elkarteak Pisukideak deituriko egitasmoa martxan jarri zuen orain dela urte batzuk.

Zerbitzu honen bidez, euskaldunei elkar ezagutzeko eta elkarrekin bizitzeko aukera eskaintzen zaie, eguneroko bizitzan, funtzio afektiboan, familia eta lagunartekoan euskararen erabilpena sustatuz.

Ekintza honen bitartez euskararen erabilera errazteaz gain, Iruñean edo Nafarroako beste herrietan bizi den edo bizitzera datorren jendearen beste behar bati ere erantzuna ematen zaio: etxebizitzaren beharrari hain zuzen ere.

EKINTZAREN HELBURUAK

Esan bezala ekintzaren helburuak nagusiak bi dira: alde batetik, euskaldunei bizitza euskaraz egiteko aukera zabaltzea eta beste aldetik, pisua eskaini eta alokatu nahi duten euskaldunen arteko bitartekaritza lanak egitea.

EKINTZA AURRERA ERAMATEKO EMANDAKO URRATSAK: METODOLOGIA

Lehenik eta behin zerbitzuari buruzko publizitate kanpaina burutu zen, zerbitzua ezagutaraztea behar beharrezkoa zen euskaldunek bertan izena eman zezaten. Behin publizitate kanpaina eginda, bi zerrenda osatu dira: alde

batetik pisuak eskaintzen dituzten pertsonen datu basea eta beste alde batetik pisu bila dabilzan euskaldunen datu basea.

Zerbitzu honetan izena ematen duen edonork bilatu edo eskaintzen duen etxebizitzaren ezaugarriak zehaztu behar ditu: zein motatako etxea edo logela nahi duen edo eskaintzen duen, zein herri edo auzotan, nolako pisukideak nahi dituen (gizonezkoak, emakumezkoak), erretzaileak diren,...

Karrikirik bitartekaritza lanak egiten ditu dohain. Era honetan kontaktuan jartzen ditu pisua eskaintzen duten eta pisu bila dabilzan euskaldunak izena ematerakoan zehaztatutako ezaugarrien arabera.

PISUA ESKAINI ETA BILATZEN DUTEN EUSKALDUNEN EZAUGARRIAK

Bai pisua alokatzen dutenek eta bai pisua bilatzen dutenek euskaldunak behar dute izan. Pisua bilatzen duten euskaldun gehienak langileak dira 25-30 urte bitartekoak. Gehienetan logela baten bila dabilza.

5.7.2. EKINTZAREN AZTERKETA ETA BALORAZIOA

Hurrengo taulan ikus daitezke ekintza honek dituen aukerak, indarguneak, mehatxuak eta ahuleziak:

AUKERAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zerbitzua geroz eta ezagunagoa bilakatzen ari da ▪ Jendearen jarrera: zerbitzua ezagutzen dutenek behin baino gehiagotan erabiltzen dute normalean 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Zerbitzua oraindik ez da oso ezaguna eta hori dela eta nahiko mugatua dago
INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Karrikiriko kideen gogoia eta motibazioa proiektu hau aurrera ateratzeko ▪ Azken urteetako esperientzia 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Publizitatea kanpaina zabal bat egiteko baliabide ekonomikoen falta

Ekintza honen bitartez Karrikirik hasieran planteatutako helburua betetzen ari da: euskaraz bizi nahi duenak eta etxebizitza baten beharra duenak horretarako aukera dauka egitasmo honen bitartez.

Zerbitzua hobetzeko beharrezkoa izango litzateke egitasmoa modu zabalago batean ezagutzera ematea, baina horretarako baliabide ekonomikoak ezinbestekoak dira.

Momentuan Karrikirin pisu bila dabiltzan hamahiru euskaldunen eskaera dago eta pisua edo logela alokatu nahi dutenen hamaseien eskaera.

Zerbitzua ezagunagoa bihurtzen doan heinean eskaera eta eskaintza kopurua igotzen doa.

6. ONDORIOAK

Orain arte ekintza bakoitzaren nondik norakoak aztertu egin dira eta atal honetan azterketa horretatik ateratako ondorioak azalduko dira.

Karrikirik bederatzi urte hauetan lan handia egin badu ere hasieratik helmuga izan duen helburua lortzea ez da lan makala. Iruñerria euskalduntzeko helburua ez dago elkarte honen esku bakarrik, beste elkarte eta erakunde askoren esku baizik. Baina Karrikiri bere lanarekin helburu hori lortzeko aurrera pausuak ematen ari da egunez egun.

EKINTZEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Elkarteko kideek burututako ekintza bakoitzaren jarraipena eta ebaluazioa egiten dute urtez urte baina ebaluazioa ez da modu zenbagarri batean burutzen. Urtero egitasmoen balantzea egiten dute eta horretaz gain ekintza bakoitzaren amaierako ebaluazioa.

Ebaluazioa egiteko irizpide desberdinak erabiltzen dituzte:

- ✚ Antolakuntzak ondo funtzionatu duen
- ✚ Karrikiriko giza taldeak ondo funtzionatu duen
- ✚ Ekintza ekonomikoki egokia izan den
- ✚ Ekintzak jendearengan espero izandako erantzuna izan duen.

Ebaluazio honen bitartez ekintza bakoitzaren alde on eta txarrak aztertu egiten dira eta lortutako emaitzen arabera ekintza baztertu egingo da, edo ekintzak aurrera jarraituko du hanka sartzeak zuzenduz.

LORTUTAKO HELBURUAK

Elkarte honek hasieratik planteatutako helburu zehatzetako asko lortu ditu dagoeneko edo lortzeko bidean dago, hala ere, zaila da, lehen esan bezala, helburu horiek zein neurritan bete diren zehaztasunez jakitea.

- Neurri handi batean euskaldunen arteko hartu-emanak sendotu ditu Karrikirik aurretik azaldutako ekintzen bitartez: pisukide zerbitzuaren bitartez euskaldun jendeari elkarrekin bizitzeko aukera luzatu egin zaio. Gainera, geroz eta jende gehiagok ematen du izena zerbitzu honetan. Lan poltsaren bitartez ere euskaldunen arteko hartu-eman horiek areagotzen doaz, baita itzulpengintza, Karrikiri denda edo “karrika gurea da” bezalako egitasmoekin.
- Euskaldun **komunitatearen egituraketa** lortzeko ere ekintza hauek oso baliotsuak izan dira eta izango dira. Karrikirik euskaraz aritzeko gune berriak sortu ditu, bai lan munduan, bai etxeko edo familiarteko bizitzan, aisian,... Helburu hauen lorpena zenbagarria ez den arren ekintzetan parte hartzen duen euskaldun kopuruaren areagotzearekin ikus daiteke euskaldun komunitatearen egituraketaren lorpena geroz eta gertuago dagoela.
- **Euskaldunen autoestima sendotzea eta handitzea Karrikiriren beste asmoetako bat da.** Halako helburua lortu den jakitea ezinezkoa izan daiteke.
- Karrikiri lortzen ari den beste helburuetako bat **Iruñerrian euskaraz bizitzeko dauden guneak** ezagutzera ematea da. Helburu hau lortzeko oso garrantzitsua izan, beste egitasmoen artean, Karrika aldizkaria. Aldizkari honen bidez, euskararekin antolatzen diren ekitaldiak ezagutu daitezke hilabetez hilabete. Merkataritzan euskaraz ekintzarekin berriz denda eta komertzio euskaldunen errolda sortu da, eta era honetan euskaldunek, erosketak euskaraz non egin ditzaketen jakin dezakete.

- **Euskaraz hitz egiteko gune berriak** ere sortu dira, esate baterako pisukide zerbitzuaren bitartez, "Karrika gurea da" ekintzaren bitartez, lan poltsaren bitartez,...
- **Euskararen erabilera modu ludiko batean sustatzeko** oso garrantzitsua da "Karrika gurea da" egitasmoa. Urtez urte partaideen kopuruak gora egiten du eta ekintza hau geroz eta ezagunagoa da Iruñerrian.
- **Euskaldunen eta euskaltzaleen euskararekiko sensibilizazioa eta motibazioa piztea.** Hemen aipatutako helburu gehienak bezala zaila da helburu hau zein neurritan bete den neurtzea hala ere Karrika bezalako aldizkariak edo merkataritzan euskaraz egitasmoak sensibilizazio eta motibazio hori pizteko oso baliagarriak izan dira.
- **Administrazioarekiko menpekotasunik ez izateko diru iturri propioak** izatea lortu du Karrikirik, bazkideen kuoten bitartez, Karrikiri dendaren bitartez eta itzulpengintza zerbitzuaren bitartez. Administrazioarengandik diru laguntzarik jaso ezean, Karrikirik bere kabuz lortzen dituen baliabide ekonomiko horiekin ere bere ekintzak aurrera eraman ahal izango lituzke.

AMIA ANALISIA

Hurrengo taulan ikus daitezke Elkarteak dituen aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahuleziak.



AUKERAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none">▪ Euskal Herriko egoera politiko egokiagoa▪ Beste elkarteekin harremanetan egotea eta informazioa elkar trukatzeko▪ Topagunearen barruan sartu izana▪ Inguruko jendearen laguntza (euskaltzaleen laguntza)▪ Euskal erakundearen laguntza▪ Hezkuntzak euskara bultzatzeko egindako lana: euskaldunen kopuruak gora egin du azken urteetan▪ Lortzen dituzten diru laguntzak (nahiz eta urriak izan)▪ Gizartearen zati baten euskararekiko sentsibilizazio handia	<ul style="list-style-type: none">▪ Testuinguru soziolinguistikoa▪ Kontestua: instituzioen eta zenbait jenderen jarrera ezkorra euskararekiko▪ Euskaldun komunitate txikia▪ Euskaldun jendearen kontzientzia falta, euskaldunen artean euskaraz bizitzeko gogorik ez duen jendea▪ Komunikabideen eragin ezkorra▪ Euskarari gorrotoa▪ Karrikiri oso elkarte ezaguna ez izatea▪ Diru laguntzen eskasia eta murrizketa▪ Euskaldunen arteko ika-mikak
INDARGUNEAK	AHULEZIAK
<ul style="list-style-type: none">▪ Ekintzak aurrera eramateko errekurso ekonomiko nahikoak izatea▪ Karrikiriko kideek proiektuan duten sinismena▪ Kideak oso aktiboak eta langileak izatea▪ Orain arteko lorpenek indarra ematen dute aurrera jarraitzeko▪ Militantzia▪ Dendak eta bazkideen kuotek ematen dituzten irabaziak▪ Elkarteko kideak elkar elikatzen dira: elkarri laguntzeko prest▪ Ilusio handia duen lan taldea osatu izana▪ Urteetan kideek lortu duten esperientzia▪ Ekintza berritzaileak eta erakargarriak sortzea	<ul style="list-style-type: none">▪ Denbora falta▪ Militantzia edo borondatezko lana: soldatapeko langile gutxi▪ Karrikiriko kideen adina eta nekea▪ Jende gutxi (25-30 urtekoa) elkartean▪ Jende berria erakartzeko zailtasunak▪ Burutzen dituzten lanak elkarteko kideak ez dira profesionalak▪ Bazkideen parte hartze baxua▪ Bazkideen adina

LORPENEN BALORAZIOA ETA AZKEN GOGOETA

Karrikiriko kideak orain arte lortutako emaitzekin pozik agertzen dira. Elkarteak baditu pozik egoteko arrazoiak. Iruñerrian aurretik inork landu gabeko esparruetan murgildu da elkarteak eta euskararen erabilera sustatzeko ekintza berritzaileak sortu ditu.

Hasiera batean Karrikirik eskainitako zerbitzuak ezagunak ez baziren ere, egun ospetsu bihurtzen ari dira euskaldunen artean. Baliabide mugatuak izanik Karrikiri gai izan da egitasmo hauek guztiak modu arrakastatsu batean aurrera eramateko.

Etorkizunari begira erronka garrantzitsuak ditu elkarteak:

- ✚ Elkarte bezala indar gehiago lortu, giza baliabide eta baliabide ekonomiko sendoagoak topatuz.
- ✚ Jende gaztea eta jende berria erakartzeko saiakerak egin.
- ✚ Eraginkortasuna handitzen saiatu.
- ✚ Beste elkarteetatik gehiago ikasi eta informazioa trukatu.
- ✚ Publizitate kanpainak hobetu.
- ✚ Ekintzak ebaluatzeko neurketa zehatzagoak burutu
- ✚ Euskaldunak ez diren euskaltzaleak erakarri.

Bederatzi urte hauetan elkarteak lan handia egin du euskararen alde eta hemendik aurrera ere horretan jarraituko du. Iruñeko euskaldunek beren bizitzako esparru guztietan euskara erabiltzeko aukera dutenean bakarrik amaituko da Karrikiriren egin beharra.

BIBLIOGRAFIA

- ✚ MARTINEZ DE LAGOS, Iker. (2004). *"Gizarte ekimena euskarazko komunikazio esparruan"*, Euskarazko kazetaritzaren I. Kongresua. Bilbo.
<http://www.argia.com/kazetaritza2004/ikermzdelagos.pdf>
- ✚ SANCHEZ CARRIÓN J.M. (1991). *Un futuro para nuestro pasado, claves de recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia: Graficas Lizarra.
- ✚ Eusko Jaurlaritza (1999). *Eremu urriko hizkuntzei buruzko VII. Nazioarteko Biltzarra*. Bilbo: Eusko Jaurlaritza, kultura saila
- ✚ Karrika aldizkaria (2006). 96 zk. Karrikiri Elkartea.
- ✚ Karrika aldizkaria (2006). 97 Zk. Karrikiri Elkartea.
- ✚ Karrika aldizkaria (2006). 98 Zk. Karrikiri Elkartea.
- ✚ Karrika aldizkaria (2006). 100 Zk. Karrikiri Elkartea.
- ✚ *"Iruñeko kale-irria"* . Argia aldizkaria. 1616 zka. 1997-3-9
- ✚ *"Karrikiri elkarteak urtea egin du Iruñeko euskalgune gisa"*. Egin. 7015 zka. 1998-1-10.
- ✚ *"Euskal Zerbitzuak euskararen zerbitzura"*. Diario de Noticias. 2003-9-8.
- ✚ *"Merkataritzan euskaraz"*. Diario de Noticias. 2004-11-29.
- ✚ *"Entzun euskaldunon hizkuntza komunitateari"*. Berria. 2006-1-25.
- ✚ *"Diru laguntzak murriztu dituztela salatu du Nafarroako euskalgintzak"*Berria. 2006- 1-19.
- ✚ *"Langile euskaldunak behar dira"*. Diario de Noticias. 2006-4-18.
- ✚ Telebistako programa: Udanblai (2005-09-05). Euskal telebista
- ✚ Telebistako programa: Postdata (2002). Euskal Telebista.